

# noaua

**Hasi da sagardotegi garaia**

**Ostiral honetan, Korrika  
Batzordea osatzeko bilera**


**“Santixabelak 1984-2003”  
diaporama Sutegin**

**Igande honetan, Irisasi BTT lasterketa**

**Lokatz artean, gustura**



# Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio



Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

**188.000 €** tik



12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi<sub>n</sub>**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**



VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)

## Albistea iruditzen

# Udalaren babesak izango du Kilometroak 15 jaiak

Udarregi Ikastolak eta Usurbilgo Udalak lankidetzan hitzarmena sinatu dute. Hitzarmenaren bidez, Udalak giza baliabideak eta baliabide materialak Kilometroak 15en esku jarriko ditu, eta bestetik, 10.000 euroko diru-laguntza emango dio, urtean zehar egingo diren ekitaldiak finantzatzeko.

### Kiroldegiko taberna, Kilometroak 15en alde

Egitasmoaren amaieran, Ikastolak memoria bat aurkeztuko dio Udalari eta emandako diru laguntza faktura bidez zurituko du.

Hitzarmen honen bitartez, Usurbilgo Udalak Kilometroak 15en esku utziko du Oiardo kiroldegiko tabernaren erabilera. Urriaren 4a bitartean, "Kilometroak 15-ek erabili ahal izango du, beti ere kiroldegia irekita dagoen ordutegian eta taberna ondo zaintzeko ardura bere gain hartuko du. Udalak, interes publi-



Xabier Alustiza Udarregi Ikastolako lehendakaria, Mertxe Aizpurua alkatea eta Marijate Imaz Udarregi Ikastolako zuzendaria.

koko arrazoiak medio, Oiardo kiroldegiko tabernaren erabilera lagapena bertan behera utziko balu, Ikastolak ez luke inolako eskubiderik izango indemnitzazioa jasotzeko".

Trukean, Udarregi ikastolak antola-

tutako ikuskizun eta propaganda euskarrietan Usurbilgo Udala babesle gisa agertuko da. Eta Kilometroak 15 dela eta, "Udarregi Ikastolak antolatutako ekitaldiek herriko eragileekiko onura bilatuko dute".

## Laburrean

### 1956koen kinto afarian izena emateko epea zabalik

Oraindik bada denbora. Otsailaren 28an batuko baitira 1956an jaiotakoak Antxeta jate-txean. Izen emateko epea zabalik izango da otsailaren 21era arte. Apuntatzeko telefono zenbaki honetara deitu behar da: 648 755 316 (Guillermo).

### Bertsu afaria, otsailaren 6an Kilometroak 15en alde

Uxue Alberdi eta Jon Maia bertsolariek eta trikitilariak girotuko dute afaria. Otsailaren 6an, 20:30ean hasita, Saizar sagardotegian. Afaritarako txartelak aurrez salgai, Gattunk dendan, Labegoxon eta Txirristan. Prezioa: 26 euro. 20 euro, ikasle eta langabetuek.

### Gure Pakea Elkarteko batzar nagusia

Urtarrilaren 30ean, 16:30ean, Artzabalen. Besteak beste, aurreko biltzar nagusiaren akta irakurri eta onartuko da, hala badagokio. 2014ko memoria aurkeztuko da, 2015ean batzordea berritzea erabaki eta aurrean egin daitezkeen aktibitate berrien proposamenak egingo dituzte.

# noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaqua.com // www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordintzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.com

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaqua.com:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Ettxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arna-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





## Maialen Unanue

# Hutsik dauden kutxak

Hilaren 9an Donostian izan ginen Berri Txarrak azken lanaren bira hasieran. Kanpoko hotza berehala bihurtu zen bero Intxaurrendoko kultur etxean, eta ordu eta erdiz, 20 kantu berriak jo zituzten bata besteari atzetik, etenik gabe. Jendearen kantu-oihuk eman zien lan berriak izandako harreraren tenperatura taldekideei.

Jakin bagenekien bi ordu eta erdiko kontzertua izango zela guztira, eta beraz, lan berri guztiak fusilatuta, talde nafarraz gozatzeko ordu bete oso bat geneukala aurretik. Orduan hasi ziren abesti zaharrak jotzen, Libre, Ikasten, Jaio. Musika. Hil eta Haria lanetakoak. Eta bai,

kantu horiek ere dantzatu eta abestu genituen ezterrari, baina agerian geratu zen azken laneko kantuek doinu oso ezberdina dutela gainontzeko guzkiekin. Iazko udan hirutan izan nintzen 20 urteen birako kontzertuetan, Lasarten, Donostian eta Bilbon. Eta izugarria izan zen bakoitza, kantu zaharrak zuzenekoan entzuteko aukera gutxitan izaten baitugu, baina 9ko kontzertu hartan jo izan ez balituzte ere faltan botako ez nituenaren sentsazioa izan nuen amaieran.

Edonola ere, talde gutxi gustatzen zaizkit Berri Txarrak bezainbeste. Herri honi buruz hitz egiteko duten modua izango da arrazoia. "Esan gezur bat, mila aldiz, errepikatu hitzez hitz; han-

dik gutxira ikusi egi bihurtzen". Hala zioen Libre laneko Gezur bat mila aldiz kantuak. Sines-tu ditzakegu txutxumutxuak, sinestu boteredunen ahotik ateratzen direnak. "Aurten hasiko gara ateratzen krisialditik". "Diru laguntza honen bidez gazteen enplegua bultzatu nahi dugu". "Garai berriak bizi ditugu Euskal Herrian". Baina sukaldarien herri honetan gauzak gordin daudela gogoratu digute Denbora da poligrafo bakarra lanean. Aldaketen herri honetan guztiak jarraitzen duela berdin. Eta galdetzen dute ea noiz hasi ginen hutsik dauden kutxak taigabe irekitzen. Bakearena. Garai berriena.

Ez naiz inongo aditua, eta

barruak mugiarazten dizkidaten taldeak gustatzen zaizkit. Beti pentsatu izan dut gustatzen zaidan musika, gehienbat, abestien letrengatik gustatzen zaidala. Abeslariari abesten duen hori sentitzen duela nabaritzeak biderkatu egiten du efektua. Pasioa baita exijitza zilegi den gutxieneko hori.

Bete dira 20 urte Berri Txarrakekoak instrumentuak asintzen hasi zirenetik, eta Denbora da poligrafo bakarra bezalako lan mardula egiteko gai izan dira, hala ere. Aldatu da taldea, aldatu da lan batetik bestera taldearen doinua, baina ez da aldatu talde nafarrak dianaren erdian apuntatu eta akorde bakoitzarekin asmatzeko duen gaitasuna.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | **Maialen Unanue** | Luis Aranalde | Idoia Torregerai | Joxe Piñas

## Hurbilagoko sari potoloa banatzeke dago oraindik

Lau sarietatik hiru banatu dituzte jada; sukalderako ontziteria, telebista eta iruditan duzuen tablet-a. Igor Gorriti herritarrari egokitu zaio. Abenduan Argilan dendan eginiko erosketengatik, Tablet Airis Onepad 735 tokatu zitzaion, abenduaren 31n ospatu zen Hurbilagoren Gabonetako Zozketan. Esandakoa, lautik hiru sari banatu dira, baina sari potoloak banatzeke segitzen du; bizikletaren "jabea" ez da agertu oraindik.

■ Bizikleta Coluer Sphera 260 Disc HD.

■ Zenbakia: 134.294 (Esnaola lurrindegiko bezero batek eduki behar du).



Igor Gorritiri egokitu zaio Argilan dendan zozketatu den tablet-a.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea  
eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak  
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

**ALDAMU**  
KONPONKETAK  
KALE NAQUISIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
eraikuntzak-obrak-erreformak

## Berehala itzali ahal izan zuten Izpiran piztutako sua

**1** 0:30ak aldera jaso zuen Udaltzaingoa abisua. Sua piztu zela Aginagan, Izpira mendi inguruan. "Zelai batean piztu zen. Baso garbi bat dago inguruan", Pello Zubeldia udaltzainburuak azaldu zigunez. Usurbildik Aginagara bidean, lehen gasolindegi ondoko lurretan dago Izpira.

Hostoak eta belarrak pilatuta zeuden tokian hasi zen sua. Ikertzen ari dira ezbeharrak "baina lehendik egindako suren bat izan daiteke, haize asko zebilen eta horrela piztuko zen nonbait". Behar bezala itzali gabeko su bat izan zitekeela aipatu digu Pello Zubeldiak.

Inguruan ez da ez etxerik, ez baserririk. "Baina txabola bat gertu dago, belarrez beteta, eta sua haraino iritsiko ote zen beldur ginen". Baina garaiz itzali zuten eta ez zen ezbeharririk izan. Udaltzaingotik aditzera eman digutenez, udal brigadakoak aritu ziren lehenbizi sua itzaltzen eta berehala agertu ziren suhiltzaileak.

### Sute bat ikustean zer egin

■ Sute bat ikusten baduzu 112 telefono-zenbakira deitu lehenbailehen. Deitzean adierazi zein den biderik egokiena hara iristeko, betiere kontuan



Urtarrilaren 15ean, goizeko 10:30ak aldera piztu zen sua Aginaga aldean.

izanda sua norantz doan. Komenigarria da, gainera, tokiko larrialdi-zerbitzuen berri izatea, baita haiekin harremanetan jartzea ere (Usurbilgo kasuan, Udaltzaingora deituz: 943 36 11 12).

■ Sute batetik hurbil daudenek suak harrrapatuko ez dituen soilune batera joateko ahalegina egin behar dute, sutearen alboetako eremuetatik eta landaredi gutxien duten eremuetatik barrena joanez saiatu behar dute handik urruntzen; autoz badoaz leihatilak itxi

behar dituzte eta arriskutik kanpo dagoen eremu batera joaten saiatu behar dute. Ez da inoiz amildegi edo sakonunerantz abiatu behar ezta hegalean gora ihes egin ere sua hegaletik gora doanean. Haizearen norabidearen aurka joan behar da beti.

■ Su-itzalketetan parte hartzen dutenek ez dute isolatuta lan egin behar, koordinatuta egon behar dute eta beti agintaritzaren eskudunaren aginduetara.

## Lehen fasean 22 kontratazio bideratu ondoren, 28 kontratu berri egiteko dirulaguntza deialdia

**M**artxoaren 31ra arteko tartea dute eskualdeko enpresek, langabetuak kontratatzeke diru-laguntzak eskatzeko. Eskualdeko Udalek, Usurbilgoak tartean, Lanbiderekin elkarlanean bideraturiko egitasmo hau, abenduan amaitu berri den proiektuaren segida da. 2014ko azken hilabetean bukatu baitzen lehen fasea.

"Bertan hiru eta sei hilabete arteko kontratuak burutzeko modua izan dute eskualdeko

eta inguruko enpresek. Denera 22 izan dira burututakoak", Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez.

### 28 kontratu burutzeko aukera

Enpresentzat langabetuak kontratatzeke diru-laguntzak eskatzeko bigarren fasea zabalduko da orain, martxoaren 31ra arte. 28 kontratu burutzeko aukera dago. Deialdian parte hartzeko bete beharreko baldintzak:

■ Kontratuen iraupena: gutxienez 3 hilabete-

koa.

■ Kontratazioak abian jartzeko epea: 2015eko martxoak 1.

■ Lanaldi osorako diru-laguntza: 3.000 euro.

■ Lanaldi erdirako diru-laguntza: 1.500 euro.

■ Diru-laguntza eskaerak: Andoaingo Udaleko Enplegu lansailean, Urigain etxean. La Salle etorbidea, 6. 943 304 221.

■ Argibide gehiago: Usurbilgo Udala 943 371 951 (Josune Mujika) [enplegu@usurbil.eus](mailto:enplegu@usurbil.eus)

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.com

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

# EAJ-PNVren esanetan, inbertsio gehiago aurreikusi behar ziren 2015eko udal aurrekontuan

**B**ilduren Udal Gobernuak 2015erako proposatu duen udal aurrekontuen aurka agertu da Usurbilgo EAJ-PNV, proposamen “eskasa eta alderdikoia” dela iruditzen zaiolako. Josune Urkola alkatezarako hautagai jeltzaleak prentsa ohar bidez azaldu digunez, “gabezia handiena inbertsioen atalean dago. Izan ere, zeregin honetara bideratutako diru kopurua oso txikia da, eta, ondorioz, aurten ez da ‘inbertsio aipagarririk’ exekutatuko herrian”.

2015erako aurrekontua 10.482.470 eurokoa izango dela, “eta kopuru horren %8,7 bideratuko da inbertsioetara, zehazki 919.000 euro”, Josune Urkolak gogora ekarri nahi duenez. Etorkizunari begira, iruditzen zaio aurreikuspen gutxiko inbertsioak direla: “gure ustez, inbertsio partida handitu eta gastu arruntak gutxitu behar dira, horretan onurak herritar guztien gana ailegatuko direlako, eta ez gutxi batzuegana”.

## Eskualdeko garapen agentziaz

Kontra azaltzeko beste arrazoi garrantzitsua Bilduk Buruntzaldeko eskualderako sortu nahi duen garapen agentzian dago. Josune Urkola udal zinegotziak aipatu duenez, Udalak 182.000 euro gorde ditu ekimen honetarako, “baina



Josune Urkola, EAJko zinegotzia, artxiboko irudi batean.

### Josune Urkola, EAJ-PNV

**“EAJk ezezko botoa eman du inbertsio gehiago aurreikusi behar zirelako eta gutxiago, aldiz, eskualdeko garapen agentzia eta ezker abertzaleak aldebakartasunetik babesten dituen gainerako proiektuetarako”**

EAJk susmoa du diru kopuru hori asko handitu beharko dela. Izan ere, Bilduk agentzia eskualdeko sei herrien eskutik sortu nahi bazuen ere, gehiengo daukan hiru herritan bakarrik egin ahal izango du, oposizioko gainerako alderdiak aurka agertu baitira. Eta ondorioz, agentzia Usurbil, Hernani eta Astigarragara mugatuko da ziur aski”. Hala balitz, hiru herriek aurrera egiteko diru gehiago jarri beharko luketela uste du Josune Urkolak. “EAJk

eskualde osoko herriak bilduko dituen agentzia bat nahi du; Buruntzaldea osoari zerbitzu emango liokeena. Ez dugu hiru herrietarako proiektu bat babestuko, ez dauka inongo zentzurik”, ondorioztatu du ordezkari jeltzaleak.

### Hondakinen kudeaketa, garestiegia

Beste arrazoiak hondakinena izan da, Udalak proposatzen duen kudeaketa “garestiegia” delako jeltzaleen esanetan. “Usurbilgo hondakinen kudeaketak 822.000 euroko gastua dauka eta zerga bilketaren bidez 520.000 euro biltzen dira, beraz, 300.000 euroko desfasea dago”, azaldu du hautagaiak. Hori dela eta, EAJk gastua murrizteko asmotan, egungo bilketa zerbitzua berrikusteko apustua berretsi du.

Laburbiltzeko, nabarmendu du EAJk ezezko botoa eman duela aurrekontuen bozketan,

“inbertsio gehiago aurreikusi behar zirelako aurrekontuan eta gutxiago, aldiz, eskualdeko garapen agentzia eta ezker abertzaleak aldebakartasunetik babesten dituen gainerako proiektuetarako”.

### Hamaikabat alderdiaren balorazioa

Udaletzeko plenoen jarraipena egiten dugu NOAUA!n eta, tarteka, alderdiengana jo ohi dugu balorazio eske. Udal aurrekontuak eztabaidatzen diren garaian, adibidez. 2015eko udal aurrekontua hasieraz onartu zenean, EH Bilduren iritzia plazaratu genuen lehenbizi (gubernuan dena bera delako), eta oposizioko alderdiengana jo genuen ondoren. PSE-EEren iritzia batu genuen aurreko astean. Eta honakoan, EAJ-PNV alderdiaren balorazioa da eskaini duguna.

Usurbilgo Hamaikabat alderdiaren iritzia jasotzeko ahalegina egin dugu, baina Luismari Ormaetxea Hamaikabateko udal taldearen bozeramaileak adierazi digunez, aurrekontuari buruzko iritzia euren bitartekoak erabiliz emango dute, ez NOAUA!ren bitartez. Baina eskertzen dutela eskaini diegun aukera.

Hamaikabat alderdiak aurrekontuen inguruko balorazioa egiten duenean bere web orrian, horren berri emango dugu aldizkari honetan. Interesekoa izateaz gain, NOAUA!ko irakurleek esker-tuko dutelakoan.

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**  
Moduz, azkar eta prezio onean  
MARKA GUZTIAK



645417665  
XABIER  
Usurbil

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra



693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

**txirriStra**  
TABERNA



-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Usurbilgo Udala ere auzitara eramango du Carlos Urquijok



Pasa den asteburuan agerraldia egin zuten UEMAkoek. Partehartzaileen artean zen Josu Portu udal zinegotzia.

Usurbilgo udaletxera ere iritsi da Carlos Urquijo Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren helegitea. Agiriak euskaraz bidaltzeagatik auzitara eramango du Udala. Eta Usurbilgoarekin batera, Amezketza, Beizama, Elgeta, Gaintza, Oiartzun eta Oñatiko udalak. Auzitara eraman nahi dituen udalen zerrenda handitzen doa. Aurretik, helegiteak jaso zituzten Aduna, Arama, Altzaga, Antzuola, Bergara eta Itsasondoko udalek. Berastegi eta Zeraingo Udalek UEMA-n sartzeko hartutako erabakiei ere helegitea aurkeztu die Espainiako Gobernuko ordezkariak.

UEMA-tik onartezintzat jo dute, euskaraz aritzeagatik epaitegietara jo behar izatea, kezagarritzat "euskararen aurkako erasoaldi hau hartzen ari den tamaina" eta helegiteon ondorioz udalek duten egoera. "Une hauetan euskararen ofizialtasuna bera ari da zalantzan ipintzen. Helegiteon bitartez, esaten ari zaizkigu euskarak, erdara ere erabili ezean, ez duela balio ofizialik administrazio arteko harremanetarako. Eta kontua da, gaur egungo euskararen legea oinarri hartuta, ez daukagula epaitegiek arrazoia emango diguten ziurtasunik", adierazi du Maren Belastegi UEMAko lehendakariak.

## Bat eginda erantzuteko deia

UEMA-ko udalak euskararen erabileran aitzindari direla gogorarazi du. Egoera honen aurrean beharrezkotzat jo du bat eginda erantzutea. "Euskara sustatzeko lanean ari garen eragile guztiok, modu bateratuan erantzuteko ueña iritsi da". Gaineratu duenez, helegiteak jaso dituzten udalei babesa adieraztetik haratago joan behar da. "Euskaldunon eskubideak ber-

## Maren Berastegi, UEMA

### "Euskaldunon eskubideak bermatu eta euskaraz aritzea juridikoki babesteko moduak bilatu behar ditugu, ezinbestean"

matu eta euskaraz aritzea juridikoki babesteko moduak bilatu behar ditugu, ezinbestean. Baita horretarako, EAeko euskararen legea bera egokitu behar bada ere", UEMAko lehendakariaren esanetan.

## 73 udalerrri batzen ditu bere baitan UEMAK

UEMAren Batzar Nagusia ospatu zen Zumaian, eta helegiteen gaiak zeresana eman zuen. Hauek dira aho-batez hartu ziren erabakiak:

■ Zerain UEMA-ko kide izatea. Zerain onartuta, lau herrialdeetako 73 udalerrri bilduko ditu UEMA-k.

■ Aktak euskaraz bidaltzen jarraitzea erabaki duten udalak babesteko ditu UEMA-k. Eta udalek UEMA-ren aholkularitza juridikoa baliatu ahal izango dute.

■ "Bat eginda erantzun behar diogu euskararen aurkako erasoaldi honi". UEMA instituzio eta eragileekin harremanean ari da erantzun hori antolatu nahian.

■ "Erasoei ikuspegi eraikitzaile batetik erantzuteko konpromisoa hartu dugu. Udalerrri euskaldunak, euskararen arnasmuneak indartzeko, politika eraginkorrak abian jartzen saiatuko gara; hizkuntza politika euskara departamentutik harago eraman, eta euskararen arnasmuneak duten garrantzia aintzat hartuta, politikak orokorraren erdigunean kokatzen saiatuz".

## Usurbilgo udal gobernuak:

### "Euskararen ofizialtasuna ari dira zalantzan jartzen"

Usurbilgo udaletxean ere haserrea eragin du Carlos Urquijoren helegiteak. Honako balorazioa igorri digute.

"Beste behin ere argi ikusten dugu Carlos Urquijok euskaraz aritzea eta euskararen normalizazio bidean egiten diren urrats guztiak oztopatu nahi dituela. Kontratazioetako irizpideak errekurritu zituen, erabilpen planak izan ditu jomugan, herri euskaldunak UEMA-n sartzeko oztopoak jartzen ari da eta, orain, administrazioen arteko harremanak elebitan izan behar duela dio".

Udal gobernuaren esanetan, "gaia oso larria da, euskararen ofizialtasuna bera ari dira zalantzan jartzen. Euskara ofiziala dela diote, baina ondoan gaztelania jartzen badiegu. Ulertezina egiten da bi hizkuntzak ofizialak izanik eta administrazioak bi hizkuntzak jakitera behartuta gaudela kontuan hartzen badugu, nola den posible euskaraz aritzearen legezotasuna zalantzan egotea".

"Urte luzez eta lan handia eginda, euskaraz funtzionatzera iritsi gara gure udaletan", hala dio Usurbilgo udal gobernuak, "eta horrelako erabakiek lan hori guztia atzera botatzea dakarte. Izugarritzko atzerapausua da".

Udalei izugarritzko kostu handia suposatuko lieke "orain udal erabaki guztiak itzultzen hasi beharrak. Eguneroko lana bikoiztuko luke beharrik ez dagoenean. Egungo funtzionamenduan herritar guztien eskubideak bermatzen ditugunean".

## Euskara Legearen berme juridikoaz

Bitxia da, gutxienik, gertatzen ari dena. Eusko Jaurilaritzak dio "legezkoa dela aktak euskara hutsean bidaltzea, baina ez dugu berme juridikorik. Aurrez badago legezkoa ez dela dioen epai bat (Lekeitiokoa). Honen guztiak arazo larri bat agertarazten du, Euskararen Legeak ez duela nahiko berme juridikorik".

## Elkarlanean "egin behar diogu aurre"

Usurbilgo udaletxetik adierazi digutenez, "guk aurrera egingo dugu erabakiarekin, baina ez dugu uste kontu hau epaitegietan defendatzea udaloi dagokigunik. Euskararen ofizialtasuna EAEn Eusko Jaurilaritzari dagokio defendatzea. Jasotzen ari garen erasoaldi honen aurrean ezin dugu udalok bakarrik geratu. Instituzioen, euskalgintza-aren eta herritarren elkarlanaz egin behar diegu aurrera horrelakoei".



## Formazio saioak gurasoentzat



Clara Wolfram gurasoentzako tailer bana gidatuko du Zubietan eta Usurbilen.

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak sustaturiko hezkidetzaren programaren baitan, Zubietako Eskola Txikiko zuzendaritza eta guraso elkartearekin batera, "seme-alabak aniztasunean hezten" izeneko guraso tailerra antolatu dute. Tailerra, urtarrilaren 28an eta otsailaren 4an, 17:00-19:00 artean Zubietako Kaxkape egoitzan. Clara Wolfram, udal hezkidetzaren programako arduradunak bideratuko du. Tailerra doakoa izango da, parte hartzeko ez da aurrez izena eman beharrik izango.

"Zer da neska izatea eta zer da mutil izatea? Haurtzaroan haurrek galdera honen erantzuna bilatzen dute, beraien izaera eraikitze orduan esanguratsua baita munduan nola ulertzen den mutila ala neska izatea. Familian erreferenteak anitzak badira ere, haurrei zuzendutako produktuak oraindik oso estereotipatuak dira (jostailuak, ipuinak eta ikusentzunezkoak). Horietan, zer espero da nesketaz, eta zer mutiletaz? Honen inguruan gogoeta egiteko eta baliabideak garatzeko tailerra da hau", antolatzaileek berri eman dutenez.

### Gurasoentzat hitzaldia Zubietan

Tailer honen aurretik, "Haurren beldurak nola kudeatu" izeneko hitzaldia antolatu dute Zubietan, ostegun honetarako, eta Nerea Mendizabal psikopedagoak zuzenduko du saioa.

■ Urtarrilak 22 osteguna, 14:30ean Kaxkapean. Zubietako Guraso Elkarteak antolatuta.

### Teknologia berrien erabileraz

Teknologia berrien erabilera osasuntsu eta arrisku gabekoa sustatzeko tailerra antolatu du Usurbilgo Udalak. Formazio saioa urtarrilaren 26an, euskaraz, 18:00-20:00 artean Potxoenean. Erdarazko saio bat ere programatu dute, urtarrilaren 28rako, ordutegi eta leku berean; Potxoenean, 18:00etatik 20:00etara. Araiz Zalduiegik bideratuko ditu hitzaldiak. Guraso, tutore legal edota hezitzaile lanetan dihardutenei zuzenduak egongo dira. Izen emateko (doan da): [gizartelangilea3@usurbil.eus](mailto:gizartelangilea3@usurbil.eus) 943 377 110

■ Urtarrilak 26 astelehena / urtarrilak 28 asteazkena, 18:00etan, Potxoenean.

### "Seme-alabak berdin hezitzen al ditugu?", guraso tailerra Hitz Ahoren eskutik

Zer espero da nesketaz, eta zer mutiletaz? Nolakoa izan, zer gustatu, eta zer arbiatu. Haurtzaroan haurrek galdera honen erantzuna bilatzen dute, beraien izaera eraikitze orduan esanguratsua baita munduan nola ulertzen den mutila ala neska izatea.

Nerabezaroan heldu sentitzen dira, eta bakoitzak bere "emakume" edo "gizon izateko modua perfilatzen doa. "Orduan bereziki aktibatzen dira jendartean dauden estereotipo eta mezu sexistak, eta eragiten dute bai nesken bai mutilen aukeretan. Nesken kasuan, gainera, bereziki jasaten dira mezu negatiboak edo autoestimua osasuntsua eraikitzearen kontrakoak", Hitz Ahotik aditzaera eman dutenez.

Guzti honen inguruko lanketa egiteko tailerra antolatu du Hitz Ahok. Urtarrilaren 28an Zubietan egingo den ikastoroko hizlari berak gidatuko du Potxoeneakoa. Gurasoen erreferentzia adin honetan ere garrantzitsua denez, gurasoei zuzendua dago ikastaroa.

### Landuko diren gaiak

- Generoaren eragina txikitatik.
- Jarrera sexistak nerabeen artean.
- Nesken aniztasuna eta ahalduzkoa sustatzea.
- Mutilen aniztasuna eta maskulinitate eredu berriak sustatzea.

### Noiz, non eta norekin

- Otsailak 3 eta 17.
- Ordutegia: 17:00-19:00.
- Lekua: Potxoenean.
- Irakaslea: Clara Wolfram, Udal Hezkidetzaren Programaren arduraduna.

### Izen-ematea

- Urtarrilaren 26tik 29ra. Parekidetasun sailera deituz (943377110) edota mezu bat idatziaz [parekidetasuna@usurbil.eus](mailto:parekidetasuna@usurbil.eus)
- Ikastaroa doan. Doan da.
- Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkarte.

**TXAPELDUN**  
TABERNA  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna lurra 2, 943 11 82 53

  
**ARRANDEGIA**  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**Patri Jatetxea**  
  
K/nagusia 14. © 943 362 725

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5



# Hasi da sagardotegi garaia

USURBILEKIN ELKARLANA SUSTATU NAHI DU ASTIGARRAGAK



Astigarragan eman zitzaion hasiera "ofiziala" sagardotegi garaia. "Loreak" filmeko aktoreena izan zen ohorea.

**T**xoootx!, datozen hila-beteotan sarritan entzungo dugun hitza. Abian da ofizialki, 2015eko sagardo denboraldia, urtarrilaren 14an Astigarragan ospaturiko irekiera ekitaldiarekin. Hitzor- duan aditzera eman zuten, 2014ko uztak 10 milioi litro sagardoko ekoizpena utzi digu.

Iazkoaren antzeko kopurua. Baina sagar barietateen araberako uzta irregularra. "Es-kualdeen artean ekoizpena oso desberdina izan da eta baita sagastian bertan ere, askotan frutarik gabeko barietateak ikusi baitira, eta ondoan, adar asko haustea ondorioztatu du- ten sagar ugariko barietateak. Egoera hau Gipuzkoa osoan eman da antzeko moduan", Astigarragatik berri eman du- tenez.

Sagardo usaingarria, hori-ber- dexka kolorekoa, txinparta bikainekoa, sagardo orekatua, oso edan erraza eta arina das- tatuko omen dugu denboraldi berri honetan. "Uda fresko eta hezeak sagarraren azukreen kontzentrazio egokia ahalbide- tu du, zuku arinak eta freska-

## Astigarragako alkatea

**"Aurten, Hernani eta Usurbilekin nahi dugu elkarlan bat egin. Dugun aberastasuna partekatu, produktu turistiko erakargarri- go bat eta hobeago bat eskaintzeko"**

garriak lortuz", txotx irekiera ekitaldian berri eman zuten.

## Elkarlana, "produktu turistiko erakargarriagoa eskaintzeko"

Sagardo denboraldi berriko nondik norakoak aurkeztu zi- tuzten, Astigarragako kultur etxean. Besteak beste, Usurbi- li loturiko aipamenik ere egin zen. Andoni Gartzia udalerriko alkateak, Astigarragan sagar- doaren inguruan bultzatzen duten elkarlana, herritik kanpo zabaltzeko nahia adierazi zuen. Hernani eta Usurbilgo herriekin elkarlana sustatzearen aldeko apustua egin nahi du. "Uste dugu garaia dela inguruko he- rrietan elkarlanean hasteko. Aurten, bai Hernani eta Usur- bilekin nahi dugu harreman

bat, elkarlan bat egin. Herriko dugun aberastasuna partekatu, produktu turistiko erakargarri- go bat eta hobeago bat eskain- tzeko, etorriko diren bisitari guztiei", Gartziaeren esanetan.

## "Loreak", txotx irekieran

Baserrri eta sagardotegietan emakumeek burutzen du- ten lana goraiatu nahi izan zuten, aurreko asteko txotx irekiera ekitaldian. Eta zer hobeto, hiru emakume eza- gun, sagardo denboraldi berriari ekiteko. Aurtengoan, "Loreak" filmeko lan taldeak izan du 2015eko txotx garaia abiatzeko ohorea. Jon Ga- raño eta Jose Mari Goenaga pelikulako zuzendariak Asti- garragan ziren, baina kamera eta argazkilarien fokuetatik aparte. Protagonistak filmeko hiru emakumeak izan ziren; Itziar Aizpuru, Itziar Ituño eta Nagore Aranburu. Pozik eta oso hunkituta. Nola ez, lore sorta bana jaso zuten hirurek eta sagarrondo berria landa- tu, Astigarragako Sagardoetxe ondoko zelaian. Bereziartua sagardotegian ere lehen tragoa dastatzeko ohorea izan zuten.

## Egin txotx!

### herritik atera gabe

#### Aginaga sagardotegia

■ Aginaga auzoa.

Telefono zenbakia: 943 36 67 10 // 943 37 06 68.

Emaila: info@aginagasagar- dotegia.com

Web orria: aginagasagardo- tegia.com

Lotarako lekua; Hotela\*\*

#### Aialde-Berri sagardotegia

■ Aialde Berri 37, Santue- nea.

Telefono zenbakia: 943 365 031.

#### Araeta sagardotegia

■ Berridi bidea 22, Zubieta.

Telefono zenbakia: 943 362 049.

Web orria: araeta.com

#### Arratzain sagardotegia

■ Arratzain baserria, 22.

Telefono zenbakia: 943 366 663.

E-posta: info@agroturis- moarratzain.com

Web orria: agroturismoarra- tzain.com

#### Iruin sagardotegia

■ Petritza bidea 12, Zubieta.

Telefono zenbakia: 943 361 229.

E-posta: ion@iruinsagardo- tegia.com

Web orria: iruinsagardote- gia.com

#### Saizar sagardotegia

■ Kalezar, 39.

Telefono zenbakia: 943 37 39 95.

Web orria: www.sidrassai- zar.com

E-posta: sidreria@sidrassai- zar.com

#### Urdaira sagardotegia

■ Urdaira baserria, Aginaga.

Telefono zenbakia: 943 372 691.

# Partaide berriak, Irisasi BTT

**L**ehiakortasunik gabekoa, lagun arteko proba da Irisasi BTT “Hotzak akabatzen”. Izen ematei erreparatu besterik ez dago. Badira, lagun taldean parte hartzeko aurkeztzen direnak. Axier Dominguez eta Iñigo Sasiain kasu. Azterketa garai betean diren herriko gazteok, etenaldia hartuko dute, igande honetako mendi bizikletako martxan lehen aldiz parte hartzeko. “Mendia eta bizikleta gustatuz gero, lagun artean ondo ibili, gozatu eta goiz on bat lagun artean pasatzeko aukera”, emango diela adierazi diete urtarrilaren 25eko hitzorduak, NOAUA!ri eskaini dioten elkarrizketan.



Lagun taldean partehartuko dute Iñigo Sasiainek eta Axier Dominguezek.

## Zer kirol jardueratan aritzen zarete?

**Iñigo Sasiain:** Futbolekin nabiltz txikitatik eta Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeko kidea naiz. Bizikletarekin beti kontaktuan. Beti saltsan ibiltzen gara eta honetara ere apuntatu gara. Menditik, Andatzatik barrena ere ibiltzen baikara mendiko bizikletarekin.

**Axier Dominguez:** Duela bi urtera arte futbolekin aritu nintzen. Gero jada, hortik aurrera neure kontura, korrika, igeri...

## AXIER DOMINGUEZ

**“Ni edozein eguraldirekin aterako nintzateke. Nahiz eta eguraldi txarra izan, denborari begirako helbururik gabe, goatzera eta ondo pasatzera goaz”**

## Igandean, 30 edo 40 kilometrotako ibilbidea osatuko duzue?

**A.D.:** Momentuan erabakiko dugu, gorputzaldiaren arabera. Ondo egonez gero luzatuko

dugu.

**I.S.:** Momentuan erabakitzen da. Afizionatuak garenontzat hori ona da, hartara ez da aurrez esan behar zer egin.

## Zuentzat zein litzateke probarako eguraldi iragarpen onena?

**A.D.:** Partaide aldetik arrakasta izateko eguraldi ona izatea, hartara jende gehiago. Baina ni edozein eguraldirekin aterako nintzateke. Nahiz eta eguraldi txarra izan, denborari begirako helbururik gabe, goatzera eta ondo pasatzera goaz.

**I.S.:** Bezperan euria egin, bidea

lokaztu eta ateri baldin badago polita izango da. Arriskutsu bihurtu gabe, proba lokatz pixka batekin ondo egongo zen.

## Zer moduzkoa iruditzen zaizue probaren antolakuntza?

**I.S.:** Antolakuntza ona da. Iaz osabarekin aritu nintzen bigurutzera kontrolatzen eta ondo. Gero komentatu izan da, zozketan ere opari asko ematen dituztela. Ondo antolatua dagoen proba da.

**A.D.:** Askok mugitzen da babeslearen artean. Horrek ere garrantzia ematen dio probari.

## “Aldatu beharra dago. Itxura zakarra du mendiak”

### Partaideek zuen antzeko profila dute. Probaz proba ibiltzen diren kirolariena?

**I.S.:** Gehienbat horiek dira. Badira beti batzuk espezifikoki mendiko bizikletan ibiliko direnak eta horretara zuzenduak daudenak. Baina gainerakoan, adibidez, triatloietan ibiltzen direnek, ora-

in halako probarik ez dutenez, jendea ekimen hauetara animatzen da.

**A.D.:** Esperientzia berri bat bizitzeko ere bai.

### Izena emandakoen artean neskarik ez momentuz.

**I.S.:** Ez dakit zergatik. Iaz Zubietako mendi duatloi pro-

ba ikustera joan nintzen eta atentzia eman zidan. Neska gutxi zeuden. Hamarretik ez ziren pasako. Krosetan adibidez jendea animatzen da.

### Andatza inguruetan entrenatzen ariko zarete. Zer egoeratan dago mendia garai honetan?

**I.S.:** Neure ustez berdintsu jarraitzen du. Nabaritu da zerbait garbitu dutela. Baina halere asko du hobetzeko neure ustez. Aldatu beharra dago. Itxura zakarra du mendiak.

**A.D.:** Bizikletarekin leku batzuetatik ibiltzeko zailtasunak daude. Adarrak leku askotan.



# “Hotzak akabatzen” proban



Adin guztietako txirrindulariak atera izan dira aurreko edizioetan.

Zuek bezala bizikletak ere sufrituko du proba hauetan. Nola prestatzen duzue bizikleta?

**A.D.:** Aste honetan balaztak ondo jarri behar ditut, bestela gaizki pasako dut. Behin edo behin Andatzara joan asmo dut, bizikleta probatzera.

**I.S.:** Ni egoera berean nago. Errepiderako bizikleta bat erabiltzen dut apropos. Baina Andatzan ibiltzeko, honetara dedikatzen ez garenez, ez dugu bestelako bizikleta berezirik erabiltzen.

## IÑIGO SASIAIN

**“Herrian bueltaka ibiltzen garen bizikletarekin aterako gara. Konpondu dizkiot balaztak eta ahal nituen gauza guztiak”**

Herrian bueltaka ibiltzen garen bizikletarekin aterako gara. Konpondu berri dizkiot balaztak eta ahal nituen gauza guztiak.

Igandean aterako zarete Irisasi BTT lasterketan. Baina aurrerantzean, mendi bizikleta proba gehiagotarako aurkezteko asmorik baduzue?

**A.D.:** Igandekoa ondo joaten bada, seguruena bai.

**I.S.:** Parte hartuko dugun lehen urtea da, baina ez azkena ziurrenik. Hurrengo urteetan hemen aterako gara eta inguruan ere probaren bat antolatzen dutela ikusten badugu, zergatik ez animatu?

## Mendi bizikleta zaleen hitzordua

- Urtarrilak 25, igandea.
- Ordua: 9:30.
- Abiapuntua eta helmuga: frontoia.
- Ibilbideak: 30 eta 40 kilometrotako ibilbide bana aukeran, 900 eta 1.300 metrotako desnibel positiboarekin hurrenez hurren.
- Oharra: "ibilbidea aldatu daiteke, eguraldiaren baldintza eta mendiaren egoeraren arabera".
- Izen ematea: urtarrilaren 23ra arte kirolprobak.com edo proba egunean bertan.
- Prezioak: 15 euro federatuek, 18 euro federatu gabekoek. Egunean bertan, 22 euro guztiak.
- Zerbitzuak:
  - Ibilbidean zehar: janaria, edari beroa eta asistentzia.
  - Helmugan: hamaiketako, dutxak Oiardo Kiroldegian eta bizikletak garbitzeko mangelak frontoian.
  - Parte hartzaileentzat: Craft markako kirolerako kamiseta eta Saizar botila bat sagardo. Eta dozenaka opariren zozketa.
- Antolatzailea: Irisasi BTT

## San Silvestre lasterketako argazkiak sarean

Hurbilago Elkartetik berri eman dutenez, abenduaren 31n ospatu zen V. San Silvestre Lasterketako argazki bilduma ikusgai duzue, Ivan Perez argazkilariaren web orrian:

ivanperez.es helbidean. “Bezeroen sarbidea” delako atalean. Argazkiak ere saltokian bertan inprimatzeko aukera dago, Hurbilagotik NOAUA!ri jakinarazi diotenez.



Argazkia: Noaua!

Hurbilagok antolatu zuen lasterketako argazkiak ikusteko: [ivanperez.es](http://ivanperez.es)

## Estitxu Berasategi, Madrilera

Urtarrilak 25etik 29ra, Espainiako Selektzioako jubenil nesken kontzentrazioan parte hartuko du Usurbil Kirol Elkarteko kide, Estitxu Berasategi Eizagirrek. Euskal selektzioarekin entrenatzeko gonbidatua izan da sarritan.

# Korrikako batzordea osatuko da asteon

**M**artxoaren 22an, igandez igaroko da 19. Korrika Zubieta, Usurbil eta Aginagatik. “Lekukoa Hipodromo zubian (Lasarte-Orian) hartuko dugu eta herriko hainbat kale eta auzo zeharkatu ondoren, oriotarrei pasako diegu Mapilen”, Etumeta AEK euskaltegitik esan digutenez. Korrika ahalik eta parte hartzaileena sustatu nahi dute. Horregatik, beste herrietan bezala, Usurbilen ere Korrika Batzordea osatzera animatzen gaituzte. Lehen bilera, ostiral honetarako, urtarrilaren 23rako deitu dute, arratsaldeko 18:00etan, Etumeta AEK euskaltegiaren egoitzan (Kale Nagusia 43, behea. Zumarte ondoan).



Korrika Txiki ere antolatuko da martxoan partean.

“Herriko elkarte zein norbanako guztiari bertara etortzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu, guztiak izango zarete ongi etorriak!. Meta ditzagun gure indarrak, auzolanean eta elkarlanean, euskaraz bizikotzen den herria lortzeko. Gutako

bakoitzaren eta gu guztioen nahiak eta ahalak, auzolanak eta elkarlanak eragingo baitu Euskal Herria, benetan, Euskararen Herria izatea”, adierazi dute euskaltegitik.

Momentuz sare sozialetan gune bat martxan jarri dute. Fa-

cebook-en hain zuzen. “Korrika 19 Lasarte-Usurbil” orrialdean zabalduko dute euskararen aldeko lasterketa gure artera heldu aurretik antolatuko diren ekin-tzen informazioa. Aurreko urteetako argazkiak partekatzeke gunea ere izango da.

## Arropa salgai

Jertseak, mahuka motz eta luzedun kamisetak, bufak, txanoak, motxilan bihurtzen diren poltsak... Eskuragarri duzue euskaltegian:

■ Kale Nagusia, 43

■ Astelehenetik ostegunera: 09:30-12:00/16:00-19:00.

■ 607 609 379.

■ [usurbil@aek.org](mailto:usurbil@aek.org)

■ [www.aek.org](http://www.aek.org)

■ [muntteri.blogspot.com.es](http://muntteri.blogspot.com.es)

# Hiru lehiaketa dakartza Korrika Kulturalak

**A**urkeztu dute Donostia 2016ren egoitzan, Korrika Kulturala, martxoaren 22an Zubieta, Usurbil eta Aginagatik igaroko den 19. Korrika girotu eta “euskal kultura bultzatu eta euskara jendurearen esparru guztietara” eramango duen ekimena. Berrikuntzekin dator; teknologia berrien garaian bizita, 19. Korrikak bere app propioa izango du laster. Bertan kontsultatu ahaliko da Korrika Kulturalaren agenda, 19. Korrikaren ibilbidea, argazkiak, lekuko eramailak nortzuk izango diren... Laster izango dugu eskuragarri, Google Play eta App Storen deskargatzeko moduan.

Korrikaren app berri horren zain, hainbat ikuskizun programatu dituzte Euskal Herrian; “Fausto” antzezlan, “Gosariak”, “Hor dago ardoa!”, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berriena, Bertso Korrika eta Bertsozalearen sekretuak. Hiru



Duela bi aste aurkeztu zen Korrika Kulturala.

lehiaketa ere antolatu dituzte Korrika Kulturalaren baitan. Martxoaren 9ra arte parte hartu ahaliko duzue ekimenotan:

## Abesti bertsioa

-Oinarriak: Korrika 19ren abestia ahalik eta gehien zabaltzeko, musika-talde desberdinen arteko bideo-lehiaketa. Talde bakoitzak Korrika 19ko abestiaren bertsioa prestatu beharko du, letra bere horretan mantenduz eta musika bere estilora egokituz.

-Saria: Asteburu pasa talde ira-

bazlearentzat.

## Bideo-kopla lehiaketa

■ Oinarriak: Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Korrikak elkarlanean antolatutako txapelketa.

■ Parte hartzaileak: euskaltegi-tako taldeak zein praktika egitasmoetako taldeak, erakunde guztietakoei zabalik.

■ Gaia: Helduen euskalduntzea.

■ Kopurua eta euskarria: 6 kopiaz osatutako bertsoaldi bat idatzi, bideoz grabatu eta bidali.

■ Saria: Afaria edo bazkaria sagardotegi batean, bi bertsozaleekin. Parte hartu duten gainerako taldeek ere aukera izango dute sagardotegian lekua eskatzeko (nork berea ordainduta).

## Bideo lehiaketa

■ Oinarriak: euskalkien inguruko bideo-lehiaketa. Parte-hartzaile bakoitzak, norbanako zein taldeak, bere euskalkiaren inguruko bideoa prestatu beharko du.

■ Bideo-sorkuntzarako baldintzak: 3 minututik beherako iraupeneko bideoa izatea eta «Euskaldun!» Korrika 19ren leloa behin gutxienez erabiltzea.

■ Saria: Mac gailu bat.

## Epea: martxoak 9

Lehiaketetako lanak bidaltzeko epea: martxoaren 9a baino lehen, [korrika.aek@gmail.com](mailto:korrika.aek@gmail.com) helbidera.

Lanen inguruko erabakia martxoaren 15ean hartuko da.

Informazio gehiago:

[www.korrika.eus](http://www.korrika.eus)



# Laguntzaile beharrean da Korrika

**M**artxoaren 22an Usurbildik igaroko den 19. Korrika laguntzeko aukera dugu herritarrok. Korrika Laguntzailea kanpaina martxan da beste urte batez. 12 euroko ekarpena egin, eta trukean, "laguntzaile zarela adierazten duen pina, Euskal Herriko ehunka komertziotan beherapenak izatea ahalbidetuko dizun Korrika Laguntzailea txartela, eta txartela erabili ahal izango den komertzioen katalogoa" eskura dezakezue. Pina, txartela eta katalogoa, Etumeta AEK euskaltegian eskuratu ahalko dira.

Gogoan izan, abenduaz geroztik salgai dagoela euskaltegian baita, martxoaren



Martxoaren 22an pasako da Korrika Usurbildik. Argazkia artxibokoa da, duela bi urteko Korrika Ginkanan egina.

19an Urepelen hasi eta hilaren 29an Bilbon amaituko den 19. Korrikako materiala; jertseak, mahuka motz eta luzedun kamisetak, bufak, txanoak, motxilan bihurtzen diren

poltsak... Tamaina eta kolore ezberdinetan. Bertaratu euskaltegira. Materiala probatu eta erosteko aukera duzue. 19. Korrika pasa arte salgai izango duzue.

## Informazio gehiago:

- Nagusia, 43
- 607 609 379.
- [usurbil@aek.org](mailto:usurbil@aek.org)
- [www.aek.org](http://www.aek.org) [munterri.blogspot.com.es](http://munterri.blogspot.com.es)

## Danbor hotsak Agerialden eta Zubietan

Danbor hotsen oihartzuna leku beretik hedatu zen San Sebastian bezperan, Usurbila. Aurten lehen aldiz, Agerialde eraikinaren bueltan ospatu baitira Udarregi Ikastolako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen emanaldiak.

Eraikin berria inauguratu zutenetik, bi ziklo hauetako ikasleak aipatu eraikinean ikasten dutenez, bi saioak ere leku berean antolatzea erabaki dute aurtengoan. Biak aterpean ospatu behar izan ziren, eguraldi traketsagatik. Hotz egin arren,

haur eta gaztetxoek ez zuten ez, senide eta lagunen berotasun faltarik izan. Asko, ohi bezala argazkilari bihurtuta gerturatu ziren Agerialdera. Zubietako eskolako ikasleak ere danborrada eskaini zuten bertaratu ziren guraso eta herritarren aurrean.



Goiko argazkian, Zubietako ikasleak. Azpian, Udarregikoak. Azken hauek Agerialden aritu ziren.

## Matrikulazioa zabalik euskaltegian

Ikasturtea urrian abiatu arren, matrikulazioak zabalik segitzen du Etumeta AEK euskaltegian. Abiatu berri dugun urte honetan euskara ikasi edo maila hobetu nahi izanez gero, eman izena euskaltegian. 0 urratetik EGA mailara arteko taldeak aukeran: Orduetgia: astelehenetik ostiralera, 9:00-12:00 / 16:00-20:00. Nagusia, 43 607 609 379 [usurbil@aek.org](mailto:usurbil@aek.org) [aek.org](http://aek.org) [munterri.blogspot.com.es](http://munterri.blogspot.com.es)

## "Jostunak", ostiralean Zubietan eta Aginagan

Aurreko ostiralean Gure Esku Dago taldeak Sutegin antolatutako "Jostunak" dokumentalaren proiektoria joaterik izan ez zenuenok, aukera berri bat duzue ostiralean honetan. Zubietan Kaxkape lokalean, eta Aginagan ludotekan. Bietan, 19:00etan hasiko da proiektioa.

# “Marisa eta auziperatu guztiak libre nahi ditugu”



Aurreko igandean, agerraldia egin zuten Mikel Laboa plazan.

**E**paiketa politikoen behin betiko amaiera, auziperatu guztiak libre uztea, eta espetxeratze gehiagorik ez gertatzea eskatu zuten usurbildarrek, igande eguerdian Mikel Laboa plazan buruturiko agerraldi jendetsuan. Urtarrilaren 29an Espainiako Auzitegi Nazionalan epaitzen hasiko diren Ezker Abertzaleko 35 kideei, elkartasuna adierazi zieten. Tartean, herriko auziperatuetariko bati; Marisa Alejandrori.

Fiskaltzak 10 urteko espetxe zigorra eskatzen du guztientzat. “Euren delitu bakarra 2005-07 artean, bere eskubide politiko eta zibilak erabiliz lan politiko, publiko eta instituzionala egitea da”, zioten urtarrilaren 18ko agerraldian.

## “Je suis basque” txartelak

Marisa eta gainerako auzipetuak libre nahi dituztela aldarrikatu zuten, “Je suis basque” kartelak eskutan zituztela ekitaldira bertaraturiko herritarrek. Modu bidegabean leporatu zaiena bertan behera utzi eta urratuak izan zaizkien hainbat eskubide berreskuratzea galdegin zuten. “Marisaren eskubide zibil eta politikoak jokoan daude”, azpimarratu zuten.

Ekitaldian gogoan izan zituzten baita, joan berri zaigun aste beltza deitu zioten horretan atxiloturiko 16 euskal herritarrek. Haietatik hiru espetxeratzeko agindua eman zuen epaileak. Ez zuten kasualitatetzat jo duela astebeteko polizia operazioa. Bilboko manifestazioaren

## ELKARRETARATZEA

***Epaiketa inoiz ez abiatzea eskatu zuten eta auziperatuek “lan politikoa eta beren oinarrizko askatasunen erabilpena egiteko duten eskubidea berreskuratzea”***

aurrean emandako erantzuna, mende-kua izan zela diote. Euskal presoek sostengu guztiak kentzeko helburuz egin. Atxilotuen delitu bakarra, “euskal presoek eskubideen defentsa eta erres-

petua bermatzeko lan egitea” izanik.

## Epaiketa, urtarrilaren 29an

Besarkada bat eta txaloak bidali nahi izan zizkieten atxilotuei. Eta elkartasun mezua baita, aipatu moduan, urtarrilaren 29tik aurrera Espainiako Auzitegi Nazionalan epaituko dituzten 35 lagunei.

Epaiketa hau inoiz ez abiatzea eskatu zuten. Eta auziperatuek “lan politikoa eta beren oinarrizko askatasunen erabilpena egiteko duten eskubidea berreskuratzea”.

## Helegitea aurkeztuko ote duen aztertzen ari da GHK

Zubietako erraustegia eraikitzeko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko (GHK) aurreko kudeatzaileek kontratatu zituzten SWAP finantza produktuen harira, produktuok eskaini zituzten Caixabank, Banesto eta Price Waterhouse entitateak auzitara eraman zituen GHK-k. Epaia aurreko astean kaleratu zuten. Epaia bankuen aldekoa izan zen.

Biharamunean, hedabideen aurrera agertu ziren GHK-ko kideak. Adierazi dutenez, kaleratu berri den epaia aztertzen dabilta une honetan. Epaia irmoa ez denez, erabakitzeko dute, helegiterik aurkeztuko duten.

“Epaian produktu hauen izaera espekulati-boa ontzat ematen da, eta honekin ez gaude inolaz ere ados”, diote Kontsortziotik. Gaineratzen dutenez, “SWAPen inguruko epai gehienetan produktuaren Kantzelazio Formula

kontratuan ez agertzea arrazoi nahikoa izan ohi dela kontratu horiek bertan behera uzteko. Eta horren inguruan badago jurisprudentzia nahikoa. Kasu honetan, ordea, epaileak bizkar ematen dio errealitate honi”.

Ainhua Intxaurrendieta GHK-ko lehendakariak zioenez, hilero ordaindu beharreko tarifa bikoiztu egingo zen, errauste planta eraiki izan balitz. Eta horrek udalei hondamendi ekonomikoa eragingo ziela dio. Azaltzen ari zena, zebakitan argi utzi zuen; errauste planta eraikitzeak guztira, 500 milioi euroko kostua izango zuen. Haren erdia aurreztuko dugu gipuzkoarrok, 250 milioi euro, eraikiko diren azpiegitura alternatiboekin. Horregatik, ingurumen aldetik soilik ez, baita ekonomikoki ere, errauste planta egitasmoa geldituta, arduraz jokatu dutela zioen.



# Usurbil bigarren, klub arteko txapelketan

Usurbildarrak txapeldunorde ditugu, estreinakoz Amezketan ospatu den Euskal Herriko Klub Arteko Pilota Txapelketan. Igandean Galdakaoko Adiskide taldekoen aurka jokatu zuten finala, 3-0 galdu zuten usurbildarrekin. Hiru modalitateetan jokatu behar zuten; banaka lau t'erdian, banaka frontoi osoan eta binaka. Aipatu moduan, txapeldun izateko faboritoak ziren arren, galdakaoztarrak nagusi, Larrunarri frontoian. Usurbildarrak bigarren, txapelketa bikain baten ostean.



Euskal Herriko Klub Arteko Txapelketaren finalan, hiru partidetan gailendu zen Galdakao.

## Mikel Landa, trinketeko txapeldun berria



Lehen Mailako banakako txapelketan, finalera iritsi zen Mikel Landa. 40-31 emaitzarekin gailendu zitzaion Julen Loitegiri. Emaitza honi esker, Gipuzkoako trinketeko txapeldun berria da Landa. Zorionak!

## Kirol instalakuntzetako abonua

Abonua duzue-nok gogoan izan laster kobratuko zaizuela. Adi, kirol zerbitzuetako arduradunen ohar honi: "Zure azkeneko abonua mota aldatu nahi izanez gero, kiroldegira agertu behar izan gabe, 2015eko urtarrilaren 25a baino lehen jakinarazten badiguzu nahikoa izango da. Adierazpenik ezean, orain arte bezala jarraitu nahi duzula ulertuko dugu. Hala nahi izanez gero, zure urteko abonua helbideratu eta urtean bi zatitan ordaintzeko aukera duzu".

Banakako abonua eta abonua familiarak eskaintzen dituzte, hilabete bat, bi, hiru, lau.... edota baita urte osorako ere.

Prezio bereziak abonua familiarretan, baita 18 urtetik beherako, jubilatuta eta 25 urte baino gutxiagoko ikasleentzat.



## Eskubaloia partidak

Urtarrilak 24, larunbata

09:15 Benjaminak LH 3-LH4:

herri kirolak-topaketa.

11:45 Infantil neskak:

Udarregi A Usurbil-Ordizia Eskubaloia

13:00 Kadete neskak:

Usurbil K.E. "B"-Carpinteria Baskongadas

16:00 Senior neskak:

Usurbil K.E.-Aloña Mendi K.E.

17:45 Jubenil neskak:

Usurbil K.E.-Eibar Eskubaloia "A"

Urtarrilak 25, igandea

09:15 Alebin neskak.

11:30 Jubenil mutilak:

Usurbil K.E.-Karibe Zaharra

## Futbola Haranen

Urtarrilak 24, larunbata

12:00 Ikastola: Udarregi 5B-Urnieta 5A

16:00 Jubenilak:

Usurbil F.T.-Texas Lasartearra C.F.

Urtarrilak 25, igandea

11:00 Alebin federatua:

Usurbil F.T.-Euskalduna

## 1. nazionalako taldea ikustera, autobusean

Senior mutilen 1. nazional mailako taldeak Trapagaranen jokatu du larunbatean, urtarrilaren 24an, iluntzeko 18:45ean hasita. Hara joateko autobus zerbitzua antolatuta du Usurbil KE-k. Egun horretan, 15:45ean irtengo da autobusa Oiarde Kiroldegi aurretik. Prezioak; Usurbil K.E.-ko bazkideek eta 16 urtetik beherakoek doan. Bazkide ez direnek 5 euro. Izen emateko: 627 271 215 (Montse) edo usurbilke@gmail.com.

**Inaki Iturgintza**

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •  
ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

**Pinturas Ion**

KANPOALDEKO FATXADAK ETA  
BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)  
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK

**690 99 05 58**  
ionf81@hotmail.com

**URPI Leihok**  
urpileihok@gmail.com

**943 50 80 95 • 688 81 93 33**  
nagusia 10 (atek) USURBIL

**Josue Igeltseritza**

**606 37 21 05**  
Atallu pol.28 USURBIL

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Pisua salgai edo alokairuan...  
619212860/685228194

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukalde. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan. 3 logela, egongela, jangela, komuna, gas naturala eta berogailuak. Tel. 619 212 860 / 685 228 194.

Pisua salgai. 90 metro karratu. Ganbara, komuna, bainugela, 3 logela, egongela eta sukalde. 156.000 euro. 699 680 265.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukalde, egongela handia, 3 logela balakoekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k orhar hori argitaratu gabe utziko luke.

borda dena 3.000 m lur saillean.  
665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukalde eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logetetako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

## Alokairuan

Hiru gelako pisu bat alokagai erdialdean. Igogailua, guztiz kanpoaldera. 630713583

Emakume bat gela baten bila dabil partekatutako 17:30-18:30 deitu (Mariusol). Atzerritarrek ez. 674463942

2 logela alokatzen dira kontratu eta erroldarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Bikote gaztea, gela bat edo biko pisu bila. Nominak ditugu, maskotarik ez. 686 056 040 (Mariano).

Pisu bat, 3 logela, bi komun, jangela, saloia, sukalde, dena kanpora begira, garajea (marra) eta trasteroa San Inazio kalean. 699421239 Jesus

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatutako pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomiko! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 570 euro. 2 logela, 2 hilabeteko fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta

berritua. 600 euro. 2 hilabeteko fiantza. txangu68@hotmail.com

"Logela bat alokagai. 250 euro+gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukalde, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

## MOTORRA

Salmenta,  
garajeak

Garaje bat alokatzen da, Zubiaurrean 10ean. Tel. 620 024 663.

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Honda Accord, 950 euro. Egoera onean. 696 50 67 39. 163.000km, gasolina, 5 ate, maletero handia eta aire egokitua.

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Neska bat eskaintzen da interna moduan lan egiteko, pertsona helduak zaintzen. Txosten eta agirirekin. Tel. 622 487 879.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantxatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai

egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduko edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Herriko emakume euskaldun bat, oso informea onekin, arratsaldetan 2-3 orduz, haurrak edo helduak zaintzen lan egiteko eskaintzen da. 687 348 223

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titularekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Tel. 608 299 579.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelarekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab... zaintzeko. Esperientzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketan... 622 487 879.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezala, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile titularekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batekin lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735



**Zorionak Jon!** Urtarrilaren 21ean 9 urte beteko dituzu. Muxu potolo bat Aginagako ikasle eta irakasleen partetik.



**Zorionak Peru!** Urtarrilaren 24an 7 urte egingo dituzulako. Aitatzxo, amatzxo eta Uxueren partez.



**Zorionak Eneko!** Urtarrilaren 21ean 2 urte beteko dituzu. Muxu potolo bat Aginagako ikasle eta irakasleen partetik.



**Zorionak Leire!** Urtarrilaren 28an 10 urte beteko dituzu. Muxu potolo bat Aginagako ikasle eta irakasleen partetik.



**Zorionak Mª Luisa!** Familia guztiaren partez!

Urtarrilaren 19an urteak bete dituzu! Askotea maite zaitugu!

## Heriotzak

**Stelian Beldianu**  
63 urterekin hil zen  
urtarrilaren 13an, Usurbilen



**Juana Azkobieta Bengoetxea**  
91 urterekin hil zen  
urtarrilaren 16an, Aginagan





354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketaren eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketaren edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konponitzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrak ematen ditut,

LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zaintzeko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonen erizain zainketak emateko prest nengo. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsalde. Irakaskuntza gradu bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu

klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsalde. Irakaskuntzan diplomatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldan, garbiketaren. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketaren eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikaske-

ta egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABA, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase par-

tikularrak emateko.

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

### BESTELAKOAK

Ezkontzako eraztun bat aurkitu dute udaltzainek. Conchi 1968/09/12 datarekin. Norbaiti falta bazaio udaltzaingoan da.

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohet bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Atxegaldeko Erdiko kalean katubat galdu da. Emea eta marroi oso argia, Sasi du izena eta argala eta txikitxoa da. Norbait aurkituko balu eskertuko genuke abixatzea, eskerrik asko. 679132707

Etxean genituen bi kanario falta zaizkigu. Aurkitzen badituzte, deitu: 943 36 55 74 (Regina).

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688888176. Pablo.

Trona bat JANE markakoa salgai. Berri berria. Urdina marrazkiekin. Tel. 666 373 665.

Mutil gazte bat prest dago, rotatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Ezkontzetan, festetan... Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 / djlarra@usurbil.com

### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak Urtarrilak 22 - otsailak 01

**Osteguna 22** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 23** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 24** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 25** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Astelehena 26** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteartea 27** RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

**Asteazkena 28** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Osteguna 29** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 30** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 31** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 01** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30etara

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** AIZPURI ODRIOZOLA, KARMELE. Latxumbe berri, 11. Hernani. 943552087 22:00 - 09:00

# Agenda urtarrila

## 23 ostirala

- **Korrika Batzordea osatzeko bilera** 18:00etan Etumeta AEK euskaltegian.
- **"Jostunak" dokumentalaren proiektzioa** Zubietako Kaxkapen eta Aginagako ludo-**tekan.** 19:00etan.

## 24 larunbata

- **"Santixabelak 1984-2003" diaporama.** 18:00etan Sutegin, Iñaki Agirresaroberen eskutik.

## 25 igandea

- **Irisasi BTT 2015 "Hotzak akabatzen...!" lasterketa.** 9:30ean Mikel Laboa plazatik. Bertan amaituko da ere.

### "Santixabelak 1984-2003" diaporama



Larunbat honetan, arratsaldeko 18:00etan hasiko da diaporamaren proiektzioa.

**G**ogoratzen garai bateko frontoi edota Paris etxe zaharraz? Garai bateko herrirako txokoak, herritarrek ikusteko aukera izango dugu, Iñaki Agirresarobek larunbat honetarako antolatu duen diaporamaren.

Sutegin eskainiko duen proiektzioak 40 minutu iraupena izango du.

- "Santixabelak 1984-2003" diaporama.
- Urtarrilak 24 larunbata.
- 18:00etan, Sutegin.

### Haurren beldurrak nola kudeatu, hitzaldia Zubietan

Parekidetasun Sailak, Zubietako Eskola Txikiak eta bertako guraso elkarteak "Seme-alabak aniztasunean hezten" izeneko guraso tailerra antolatu dute. Ostegun honetan izango da lehen saioa, urtarrilak 22, Kaxkape egoitzan.

- Nerea Mendizabal psikopedagogoa.
- Ordua: 14:30.
- Tokia: Frontoi atzealdeko Kaxkape egoitza.
- Antolatzailea: Zubietako Guraso Elkartea.

### Teknologia berrien erabilera osasuntsua egiteko ikastaroa

Formakuntza saio honen helburua, interneten adingabeek aurkitu ditzaketen arriskuak eta hauen ondorioak aztertzea izango da. Izen-ematea doan, Gizarte Zerbitzuetan, gizartelangilea3@usurbil.eus edo 943 377 110.

- Araiz Zalduegi.
- Ordua: 18:00-20:00.
- Tokia: Potxoenea.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala

### Datozenak

#### Urtarrilaren 31n, kantu-jira

Kantu Taldetik ohartarazi ohi dutenez, "herritar orok parte har dezake. Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera".

Donostia egunez egokitu da aste honetako entsegua. Jai, beraz. Datorren astetik aurrera ohiko martxari helduko diote berriz. Hurrengo hitzordua, urtarrilaren 27an, 18:30-19:30 artean Udarregi Ikastolako kantu gelan. Ikastaroan izen emateko ere aipatu ordu eta lekura joan besterik ez dago. Prezioa; 10 euro.



Urtarrilaren 31n larunbata, arratsaldeko 19:00etan hasiko da kantu-jira.

#### Ipuinetako Inauteri Jaia izango da otsailaren 14koa

Honatz NOAUA!k, Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak, Gaztelekuak eta Usurbilgo Gaztetxeak osaturiko egitaraua:

#### Otsailak 14, larunbata

- 12:00 Erraldoien kalejira dultzaineroekin.
- 16:00 Karaoke festa Gaztelekuan.
- 18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira.
- 21:30 Afaria Usurbilgo Gaztetxean. Txartelak aurrez salgai 14 eurotan, NOAUA!ko egoitzan, Irratin eta Bordatxon.

# ALKORTA AUTOZERBITZUA

## Baserriko haragia

·Frutak ·Barazkiak ·Etxeko produktuak ·Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

# ELORZA

O BRAK ETA  
ER REFORMAK S. L.

## 661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com





URTARRILAREN 22an, osteguna,  
arratsaldeko 8:00tan

# SAIZAR

Sagardotegia

Markel Bergara eta  
Geronimo Rulli Errealeko  
jokalariek,  
“Hau da Usurbilgo  
Saizar sagardo  
berria!”  
esanaz, 2015eko Txotx  
denboraldiari hasiera  
emango diote.

Bertsolariak Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu

Trikitilaria Xabi Solano

Aurkezlea Julian Iantzi

Bertsolariak

Trikitilaria

Aurkezlea

Kale-zahar auzoa, 39

USURBIL

Sagardotegiko erreserbak: 943 37 39 95

Bodega: 943 36 45 97

e-mail: [sidreria@sidrassaizar.com](mailto:sidreria@sidrassaizar.com)

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

Oharra:

Soilik sarrera izango dute erreserbatutako mahaiek.  
Edukiera mugatua. Sarrera Menua 25 €



# URDAIRA



## Sagardotegia

astelehenak itxita

**Aginaga 943 37 26 91**



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 3ra  
TXOTX-GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa

Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baseria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



943 36 12 29



Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak  
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL  
[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com) | [www.astazaransagardoak.com](http://www.astazaransagardoak.com)

# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



## SAIZAR

Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39

USURBIL

Sagardotegiko erreserbak:

**943 37 39 95**

(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

## SAGARDOTEGIA

# aginaga

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA



**943 36 67 10**

Aginaga, USURBIL [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)

Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!



%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea